

eman la zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **Testuarte kotasun baliabideak Saizarbitoriaren *Martutenen***

**Asier Urkiza Sánchez**

**Gradu Amaierako Lana  
2018/2019**

**Grada: Euskal ikasketak  
Tutorea: Mikel Ayerbe Sudupe  
Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak**

## Laburpena

Lan honen helburua Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* eleberriko harreman intertestualak ikertzea da. Saizarbitoriaren bigarren idazketa aldiko lanetan testuartekotasunak duen garrantzia aintzat izanik, *Martutene* bezalako obra mardul batean are esanguratsuagoa izan daitekeelako susmoak bultzatuta abiatu dugu ikerketa hau. Horretarako, eleberriak egile beraren gainerako obrekin zein beste idazleen obra batzuekin duen lotura xeheki jorratu da. Ezer baino lehen, ordea, testuartekotasunaren kontzeptua zertan datzan argitu da, haren sorrera zein gerora izan duen bilakabide teorikoari erreparatuz. Era berean, Kristevaren lehenengo izendapenaren ostean Gennete bezalako teorikoek egindako ekarpena zehatz nabarmendu da.

Bigarren atalean, *Martutene* eleberraren testuartekotasunari heldu zaio. Eleberria jorratzeari ekin baino lehen idazlearen inguruko informazioa eman, eta Saizarbitoriaren ibilbide literarioan testuartekotasunak duen lekua aztertu da. Behin ikerketarekin hasita, eleberria aurkeztu eta gero, *Martutenek* Saizarbitoriaren gainerako obrekin duen harremana zehaztu da. Ondoren, testuartekotasun esplizituari, hots, aipu eta komentarioen bidez azaleratzen denari dagokionez, bereziki Max Frischen *Montauk* nobela aipatu da. Halaber, maila esplizituan Unamuno eta Lizardiren garrantzia ere azaldu da. Maila inplizituan, ostera, Saizarbitoriaren eleberria Philip Rothen *American pastoral* eleberriarekin erkatu da. Azkenik, ikerketak emandako ondorioak aletu dira.

## Aurkibidea

1. Testuartekotasunari hurbilketa teorikoa .....	3
1.1. Deskribapen teorikoa .....	3
1.2. Garapen historikoa: Aurrekariak.....	4
1.3. Testuartekotasunaren bilakabide teorikoa.....	4
1.4. Testuartekotasuna eta irakurlea.....	7
2. Testuartekotasuna Saizarbitoriaren obran.....	9
2.1. Intratestualitatea Saizarbitoriaren obran.....	11
3. <i>Martutene</i> .....	13
3.1. Harreman intratestualak <i>Martutenen</i> .....	14
3.1.1. Eszenak .....	14
3.1.2. Pertsonaiak .....	15
3.1.3. Sinboloak .....	16
3.1.4. Datak .....	18
3.2 Testuartekotasuna <i>Martutenen</i> .....	19
3.2.1. Testuartekotasun esplizitua .....	19
3.2.1.1. <i>Montauk</i> .....	19
3.2.1.2. Lizardi eta Unamuno.....	23
3.2.2. Testuartekotasun inplizitua: Philip Roth.....	26
4. Ondorioak.....	29
5. Bibliografia .....	31
6. Eranskina.....	34

## 1. Testuartekotasunari hurbilketa teorikoa

Saizarbitoriaren *Martutene* eleberrian testuartekotasunak duen presentzia jorratu baino lehen, geroko ikerketa lana egoki ulertuko bada komenigarria da kontzeptua bera zertan datzan azaltzea. Hori horrela, lehenik kontzeptuaren deskribapen teorikoa egingo da; bigarrenik kontzeptuaren inguruko zenbait aurrekari historiko aipatuko dira; hirugarrenik, finkapen teorikoaren ondorengo bilakabidearen berri emango da; azkenik, testuartekotasuna eta irakurlearen arteko harremanaz jardungo da.

### 1.1. Deskribapen teorikoa

Literatur teoriaren barruan testuartekotasunak egindako bidea luzea izanik, hamaika ertzetatik heldu zaio kontzeptuari. Intertestualitate edo testuartekotasun hitza izendatzen lehenengoa, ordea, Julia Kristeva (1967) izan zen, Batjinen Dostoievskiri buruzko idazkiak oinarri hartuta. Kontzeptuaren jatorria, beraz, Batjinen obran bilatu behar da, azken honen “dialogismoaren” ideiarekin estuki lotuta baitago. Edonola ere, kontzeptuak aditzera zer ematen duen azaldu beharra dago. Euskaltzaindiako *Literatura Terminoen Hiztegiaren* arabera, testuartekotasuna testu batek aurrekoekin duen harremanetan zedarrizten da. Gérard Genettek (1982) testua palimpsestu gisa irudikatu zuen, hots, aurreko testuen existentzia ziurtatzen duen neurrian da testua testu. Testuartekotasuna kontzeptu oso eta berezizat finkatu da literatur-kritikaren eremuan, 60ko hamarkadan Kristevak ezarri zuenetik. Guillénen ustez, onuragarria da berau: “Para los comparatistas el concepto de intertextualidad (...) es esencialmente beneficioso. He aquí, por fin, un medio, pensamos, conque disipar tanta ambigüedad, tanto equívoco como la noción de influencia traía consigo” (*apud* Martínez 2001: 73). Ikerketa suspertzeko ere balio izan du izendapenak, beraz, izendatu aurretik ere literaturaren historian aski ezaguna zen gaia izan arren, sarri eragin, iturri, imitazio eta gisako ideien atzean ezkututzen zena. Kristevaren ekarpena literaturaren historia osoan ageri den joera batean sakontzera eta teorizatzen zatorren, hain zuzen ere testuen arteko harreman betiereko hori xedatzera, gaur egungoak aurrekoekin lotzen dituen: “Todo texto se constituye como mosaico de citas, todo texto es absorción y transformación de otro texto. En lugar de a noción de intersubjetividad se instala la de intertextualidad, y el lenguaje poético se lee, al menos, como doble” (Kristeva, 2002: 190).

## 1.2. Garapen historikoa: Aurrekariak

Fenomenoak, halere, Antzinatean ditu sustraiak, idazketa bere bezain zaharra baita:

(...) aunque el término intertextualidad aparece por primera vez en los años sesenta, el fenómeno propiamente dicho es tan antiguo como la invención de la escritura, con aportaciones importantes que van desde Platón y Aristóteles, pasando por Longino y Cicerón, hasta la narratología contemporánea, con Gerard Genette a la cabeza. Es más, podríamos decir que la posibilidad de encontrar teorías de la intertextualidad es infinita, no porque los pensadores hayan sido siempre conscientes de la existencia de las relaciones intertextuales sino, sencillamente, porque lo somos nosotros, los lectores contemporáneos y al re-leer a los clásicos aportamos a sus textos nuestro propio conocimiento. (Onega, 1997: 22-23)

Platonen *Dialogo sokratikoak* jartzen ditu Onegak Batjinen testu polifonikoaren adibidetzat. Kristevaren testuan esaten denez, dialogo hauek monologismo ofizialaren kontrako jarreragatik ezaugarritzen dira. Antzinateko Erroman ere erreparatu zioten fenomenoari, Zizeron eta Quintilianoren lanetan ikus daitezkeenez. Autore hauentzat imitazioa diskurtsoa garatzeko tresna ez ezik, gizakia definitzen duen praktika bat ere bada. Quintilianok latinetik latinerako itzulpena bultzatuko du, aurreko autoreen eraginak sortutako tentsioa arintzeko bitarteko gisa. Historian aurrerago joanez, Onegak gogorarazi bezala, Montaignek adierazkortasun mailaren arabera baloratuko ditu aurreko egileak, eta *amnesia* gomendatuko maisuen morrontzatik aldentzeko bide bezala.

Aro modernoari dagokionez, *New Criticism* eskolako teorikoak, gorago aipatutako autoreek defendatutako testuartekotasun antzeko horren kontra altxatuko dira, Mallarmé bezalako autore sinbolistek XIX. mendean sustatutako artearen interpretazioaren barruan. Testua egitura organiko beregain modura definitzean, teoriko hauek sinbolistek artelana ulertzeko zuten ildoari atxiki zitzaizkion, hots, testua “mundu oso baten” gisara irudikatu zuten, autoreen orijinaltasuna aldarrikatzeraino. Dena den, bada salbuespenik, izan ere, eskola honetako kidea zen T. S. Elliot ez da bat etorriko aurreko autoreen eraginaren ukatze horretan, autorearen orijinaltasunaren ezintasuna proposatuz.

## 1.3. Testuartekotasunaren bilakabide teorikoa

Hasieratik esan den moduan, Julia Kristeva izan bazen ere izendatzen lehenengoa, testuartekotasunaren garapen teorikoa Mikhail Batjin errusiarraren obran bilatu behar da. *Le mot, le dialogue et le roman* 1967ko testuan, gero bere *Sèmeiòtikè*-n (1969) sartuko

zuen, erabili zuen Kristevak “testuartekotasun” hitza lehenengo aldiz. Esan liteke Batjinen ekarpena literatur-teoriatik haratago doala, baina haren hizkuntzaren inguruko ideiek, polifonia, heteroglosia, dialogismoa edo karnabalizazioa bezalako kontzeptuak tarteko, literatura eremuan ikerketa-lerro berriak jorratzeko balio izan dute. Heteroglosia dela eta, “Batjin define la heteroglosia como forma de concebir el mundo como una masa bullente de lenguajes simultáneos, cada uno con sus propios distintivos formales, que compiten por manifestarse individualmente” (Onega 1997: 21).

Kristevak testuartekotasuna testuaren oinarritzat ezarriko du. Azken honek izaera dinamiko eta heterogeneoa du, hots, ez da zerbait itxia eta beregaina, beste testuetara irekitakoa baizik. Hitz gutxitan, intersubjektibotasunari testuartekotasuna kontrajarriko dio. Esan nahi baita, testuak ez du izaera itxirik izango, Batjin gogoan, dialogoan sortuko da, testu gurutzaketa bezala:

Esta dinamización del estructuralismo no resulta posible más que a partir de una concepción según la cual “la palabra literaria” no es un *punto* (un sentido fijo), sino un *cruce de superficies* textuales, un diálogo de varias escrituras: del escritor, del destinatario (o del personaje), del contexto cultural anterior o actual. (Kristeva 2002: 188)

Testuartekotasuna bi ardatzetan sortzen da; alde batetik ardatz horizontala dago, edo igorlea eta jasotzailearen arteko harremana; bestetik, testuak berak bere aurreko testuekin duena. Martinez Fernandez (2001) hitzak kontuan hartuz, geroagoko teorikoen lanetan kontzeptua zabalagotzen eta ñabardura askotan bereizten joango da, are zenbait azpisailetan banatzeraino: kanpoko (testu baten bestearekiko harremana) eta barruko testuartekotasuna (testu baten elementuen artekoa); edota testuartekotasun arrunta (autore ezberdinen arteko harremana) eta intratestualitatea (autore baten testuen arteko harremana). Ildo honetan, testuartekotasun inplizitua eta esplizitua ere bereiziko dira.

Hainbat urte geroago Gérard Genettek ekarpen berria egingo zuen, bere *Palimpsestes. La littérature au second degré* (1982) lanean kontzeptua zertan zetzan argi eta sakon adierazten saiatuz. Genettez testuaren poetika ez da testua bera, testuaren transtestualitatea baizik. Transtestualitate delako hau, oster, bost motatan bereiziko du, hurrenez hurren: 1) *testuartekotasuna*, edo irakurleak testu baten eta bere aurreko eta ondorengo testuen arteko harremanaz duen jabekuntza, aipu, testu edo erreferentzien bidez egituratzen dena; 2) *paratestualitatea* edo testu batek bere paratestuekin duen harremana; 3) *metatestualitatea*, edo testu batek berataz diharduen batekin duen

harremana; 4) *hipertestualitatea*, testu bat (hipertestua) bere aurreko batekin (hipotestua) lotzen duen harremana, eraldaketa arrunt edo konplexua tarteko; 5) *artxitestualitatea*: diskurtso bat osatzen duten arau orokorren multzoa (diskurtso motak, enuntziazio motak, genero literarioak...).

Aipatutako bost mota horien artean Genneteri gehien interesatzen zaiona hipertestualitatea da. Orainsu aipatu bezala, hipertestualitatea B testu (hipertestua) eta aurretikoa den A testu (hipotestua) baten arteko harremana da, komentarioa ez den modu batean txertatua (honetaz metatestualitatea arduratzen baita). Harreman hipertestual hori maila deskriptibo batean eman daiteke, adibidez, testu jakin batek aurreko bati buruz esplizituki diharduenean. Harremana, ordea, bestelakoa ere izan daiteke, izan ere, baliteke B-k A-ren berri ez ematea, baina lehenengoa ezinbestekoa izatea bigarrenaren sorrerarako. Gennetek itxuraldaketa gisa aurkeztuko du azkenengo hau, kontzeptua hau bi motatan bereiziz. Adibide modura, Virgilioren *Eneida* eta James Joycen *Ulysses* joko ditu *Odisearen* hipertestutzat. Esan nahi baita, lehenengo obra horiek ez dira *Odisea*-tik eratortzen komentarioa bitarte, itxuraldaketa bidez baizik. Gehiago zehazte aldera, ordea, biena ez litzateke itxuraldaketa bera izango. *Ulysses* *Odisea*-ren itxuraldaketa zuzena da, gertaerak XX. mendeko Dublinera ekarriz, besteak beste; *Odisea*-tik *Eneida*-ra daraman bidea, aldiz, konplexuago eta zeharkakoagoa da, hemen imitazioa baitago. Imitazioa itxuraldaketa mota bat litzateke, baina zuzena baino askoz konplexuagoa.

Betiere hipertestualitate kontzeptuaren gainean lan egiten, Gennetek literaturtasunaren ezaugarri unibertsaltzat joko du, Kristevak aurrez egin bezala. Gauzak horrela, autore honentzat transtestualitate mota ezberdinak ezaugarri huts ez ezik, testu motak ere badira. Esaterako, edozein testu bihur daiteke aipu, aipatua izan daitekeen heinean, baina hori gertatzen da hain zuzen aipua praktika literario ezaguna delako. Gennetek, era berean, hipertestualitatearen barruko mailak bereizten ditu. Hau da, hipertestualitatea handiago edo txikiagoa izango da hipotestuak hipertestuan duen presentziaren arabera, eta presentzia hori nola adierazita dagoen. Presentzia izan daiteke masiboa eta ezin argiagoa, edo murrizta eta ilunagoa. Azterketa honetan, Gennetek pastitxea eta parodia bezalako generoez dihardu bereziki, horrelakoetan testu batetik besterako eratorpena argiagoa denez gero.

Testuei begira, elementu intertestual ugari bereizi dira. Betiere testuartekotasun esplizituari dagokionez, Gennetentzat (1982) baliabide intertestualik agerikoena aipua da;

ondoren plagioa dator, edo deklaratu gabeko kopia; azkenik, motarik ilunena alusioa da, hau da, nahitaez beste batekin lotzen den esakunea, zeinaz guztiz jabetzeko beste testu baten berri izan behar den. Hauen artean, zalantzarik gabe, aipua izan da baliabide intertestualik aztertuen. Martinez Fernándezentzat (2001) aipua zera da, aurreko testu bateko diskurtsoa norbere testuan sartzea, hau da, norbere jardunean beste narratzaile baten ahotsa sartzea, dela haren hitzak esplizituki sartuz, dela horiek birsortuz, zuzenduz... Aipuen kasuan ere inplizitu eta esplizituen artean bereiz daiteke. Aipu esplizituak beste narratzaile baten hitzak testuraten ditu, zuzen zein zeharka. Aipu inplizituak, ostera, ez dira sintaktikoki aipu modura artikulatzen, balio ebidentziala duten aipuen kasuan bezala.

Baliabide intertestualez, edo nahi bada testuartekotasun motez aritzean, derrigorrez testu ezberdinen arteko harremanaz ari gara. Martinez Fernándezek (2001), ordea, kanpoko eta barruko testuartekotasuna bereizten ditu. Kanpokoak egile ezberdinen testuen arteko harremanari erreparatzen dio, barrukoak egile beraren testuen arteko loturetan arreta jartzen duen bitartean. Bigarren honi, terminologia errazte aldera, intratestualitatea esaten dio: berau egile beraren obren arteko harremanean gauzatzen da, hots, aurreko obra batek ondorengoarekin dituen lotura testualetan. Rivera de la Cruz (1997) arabera, intratestualitatea errepikapenaren bitartez gertatzen da. Hori horrela, bi errepikapen mota aipatuko ditu: alde batetik, errepikapen mimetikoa dago, zeinetan testu bateko elementua beste testu batzuetan agertzen den, aldaketa txikiekin, edo sarritan batere aldaketarik gabe; bestetik, aldaketa esanguratsuak ageri dituzten errepikapenak leudeke. Errepikapen horiek eszenak, pertsonaiak edo egoera jakin batzuenak izan litezke. Maiz, istorio batetik besterako pertsonaien eratorpena gertatzen da, gehienetan izen berberak erabiliz. Halaber, gerta liteke testu askotan egoera edo irudi berberak edo berdintsuak errepikatzea. Errepikapenaren joera hau azaltze aldera, Rivera de la Cruzek (1997) egilearen obra testu bakar bat legez ikustera jotzen du, hots, testu bakoitzak goragoko testu bat osatuko luke. Hezurdura horretan, testu bakoitza independentea eta behin-betikoa bada ere, beste testuekiko harremanetan baino ez du esangura osoa eskuratuko.

#### 1.4. Testuartekotasuna eta irakurlea

Testuartekotasuna jorratzean ezin da inolaz ere bazter utzi irakurlearen funtzioa. Mendozak (2008) dioenez, izan ere, testua eta irakurlearen arteko dialektikak definitzen baitu fenomeno literarioa. Harreraren teoriak harreman hau ikertzea du helburu. Teoria



honek irakurleak testuartekotasunaren aferan duen garrantzia azpimarratzen du, irakurle-jasotzailearen harrerarik gabe egitate intertestualik ez dago-eta. Honen haritik, Mendozak irakurlearen araberako intertestuaren kontzeptua mahaigaineratzen du, diskurtso literarioa osatzen duten askotariko erreferentzien antzemate eta identifikazioan oinarritzen dena.

El intertexto lector es un componente básico de la competencia literaria; en el espacio de la competencia literaria, integra, selecciona y activa significativamente el conjunto de saberes, estrategias y recursos lingüístico-culturales para facilitar la lectura de textos literarios. Los distintos elementos que lo componen se activan en la recepción, en la interacción entre emisor/receptor y en la apreciación de las correspondencias re-creadas entre textos diversos, a la vez que potencia la actividad de valoración personal a través del reconocimiento de conexiones y del desarrollo de actitudes positivas hacia diversas manifestaciones artístico-literarias de signo cultural. (Mendoza 2008: 105)

Irakurlearen papera, hortaz, garrantzitsua da baliabide intertestualak antzemateko. Autore batzuen ustetan, testuartekotasuna irakurlearen parte-hartzearen araberakoa da. Batez ere testuartekotasun implizituaren kasuan gertatuko da hau, non bestelako testuen oihartzunak identifikatzea irakurlearen gaitasunari soilik dagokion. Literaturaren ezaugarri funtsezkotzat aurkeztuz, jadanik aipatu denez, hala definituko du Riffaterrek irakurlea eta testuartekotasunaren arteko harremana:

L'intertextualité est la perception, par le lecteur, de rapports entre une oeuvre et d'autres, qui l'ont précédé ou suivie. Ces autres textes constituent l'intertexte de la première. La perception de ces rapports est donc une des composantes fondamentales de la littérarité d'une oeuvre. (apud Martínez Fernández 2001: 61)

Hain da garrantzitsua irakurlearen papera, ezen testuartekotasuna honek testuaz duen jabetzan oinarritzen den. Intertestuak, bere aldetik, obra bat bere ezaguera osoan ulertzeko irakurleak ezagutu beharreko testu multzoak dira. Beraz, intertestuek xedatuko dute testu baten harrera prozesua.

Martínez Fernándezek (2001) esaten duenez, irakurlearen gaitasuna mailaz mailakoa da, maila baxuetatik hasi eta altuenetaraino. Ezaugarri intertestual horien antzematea irakurlearen literatur jakintzaren araberakoa dela egia bada ere, idazleak zailtasun maila ezarriko du. Hori horrela, irakurleari lana dezente erraztuko zaio idazleak testuartekotasun esplizituren erabilera eginez gero, aipu zuzenen bitartez, esaterako. Beste horrenbeste gertatzen da testua aurreko testu baten onarpen edo erantzun modura burutzen denean, sarritan omenaldi itxurarekin. Edonola ere, testuartekotasun

inplizituaren kasuan ere mailaketa dago, idazleak antzematen zaila den erreferentzia ezkutua eman baitezake, edo aitzitik, tradizio herrikoia erabili, irakurlearen hautematea erraztuz. Azken hau harreman intertestualaz jabetu ezean, testuartekotasuna agerikoa baino, prozesu itxia litzateke. Testuartekotasun inplizituak, beraz irakurlearen ezagutza bidezko kolaborazioa eskatzen du, harremana berak “aktibatu” behar baitu. Alegia, irakurle arretatsurik gabe ez dagoela testuartekotasun inplizitua aktibatzerik.

## 2. Testuartekotasuna Saizarbitoriaren obran

Ramon Saizarbitoria Zabaleta Donostian jaio zen, 1944ko apirilaren 21ean. Egun erretiratuta badago ere, lanbidez soziologoa izana da eta 60ko hamarkadan hasi zen literatura munduan bidea egiten. Lehenbizi artikuluak idatziz; 1969an Lur argitaletxea sortu zuen, Gabriel Aresti, Ibon Sarasola, Mikel Lasa eta Arantxa Urretabizkaiarekin batera. Urte berean publikatu zuen bere lehenengo eleberria, *Egunero hasten delako*. Hurrengo hamarkadan, *Oh! Euzkadi!* literatura-aldizkaria sortu zuen Koldo Izagirre lagun zuela eta bere obraren lehenengo aldia osatuko zuten *100 metro* (1976) eta *Ene Jesus* (1976) eleberriak argitaratu zituen. Azken honek Kritika saria jaso zuen. Hemeretzi urteko isilaldiaren ostean, 1995ean *Hamaika pauso* nobela argitaratu zuen, honek ere Kritika jasoko zuen. Ondoren, *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) eta *Gorde nazazu lurpean* (2000) etorriko ziren. Biek jasoko zuten Kritika saria, eta azkenak baita Euskadi Saria ere. 2003an *Kandinskyren tradizioa* gazte-literaturako obra kaleratu ostean, 2012an *Martutene* nobela argitaratu zuen, Euskadi Saria jasoko zuena. *Lili eta biok* (2015) da, oraingoz, bere azken eleberria. Fikziozko obrez gain, soziologiaren inguruko lanak ere argitaratu ditu, baita *Aberriaren alde (eta kontra)* (1999) saiakera ere.

Ondorengo lerroetan aztertuko dugun bezala, Saizarbitoriaren obra osoa testuartekotasun aipu, erreferentzia edota kultura oihartzunez josita dago. Are gehiago, testuartekotasuna joko meta-literariorako tresna gisa ere erabili du. Beraz, esan daiteke bere obrak halako izaera entziklopedikoa ere baduela. Idazlearen eraginaren artean, Olaziregik (2001) esan izan du Saizarbitoriaren obraren muina ezagutzeko batez ere XX. mende erdialdean Frantzian sortu zen Nouveau Roman delakoari erreparatu behar zaiola. Era berean, Mikel Hernandez Abaituak 2008ko *Ramon Saizarbitoriaren lehen eleberrigintza* tesian adierazi zuenez, eraginak mende horren hasierako Modernismoan ere bilatu behar dira, James Joyce, Virginia Woolf edo Samuel Beckett bezalako idazleengan, hain zuzen.

Eraginak eragin, Saizarbitoriaren mundu literarioa hain zabala izanik, egile askoren arrastoa somatzen da bere obra osoan zehar. Testuartekotasuna izan daiteke esplizitua, aipuren bidez adierazia, edota inplizitua, estilo literarioan edo gaietan islatzen delarik. Esan bezala, lehenengo bi nobeletan, hots, *Egunero hasten delako* eta *100 metro*, batez ere Nouveau Romanetik edango du Saizarbitoriak. Hirugarren nobelan, berriz, ordura arte bere obran ezezaguna zen eta berriro errepikatu ez duen esperimentazio maila batera iritsi zen. Nabarmenak dira, izan ere, Becketten “isiltasunaren poetikaren” oihartzunak *Ene Jesusen*. Olaziregik seinalatzen duenez, kontaketa bera hizpide bihurtzen du idazleak, nobela meta-nobela gisa itxuratuz. Istorioak kontatzearen ezina dario liburuari, Beckettek *Malone Meurten* (1951) egindakoaren ildotik. Belaunaldi baten kronika ere baden *Hamaika pauson* antzematen hasten da gorago aipatutako entziklopedia izaera. Orobat, nobelan zehar idazle ugarien aipuak Abaituaren gogoaren inguruko zertzeladak emateko zein literaturaren funtzioaz hausnartzeko erabiltzen dira. Forma aldetik Nouveau Roman delakoa da eragin nagusia, Olaziregik esan legez. Baina nobela honek oihartzun ugariagoak ditu, izan ere, etengabe tartekatzen dira idazleen aipuak eta erreferentziak. Nabarmentzeko moduko batzuk: Unamuno, Butor, Flaubert...

*Bihotz bin* bikote harremanen gatazkei erreparatu zien Saizarbitoriak, Gerra Zibila atzetik oihartzun gisa jarrita. Desleialtasunaren gaia jorratzeko modua dela-eta, Joyce-n *Ulysses* (1922) edo *Finnegan's Wake* (1939) nobelekin parekatu liteke, Olaziregiren ustez (2001), batik bat protagonistari eragiten dizkion ondorio psikologikoetan. Leopold Bloom *Ulysses*eko protagonistak, baina, *Bihotz bikoak* ez bezala, ez du emaztea akabatzen. Flora Ugalde nobelako emakumezko protagonistak, berriz, antzekotasunak ditu Molly Bloomekin. Izenetik bertatik (“bloom” hitzaren adiera bat lorea baita), baina baita beste ezaugarri batzuetan ere, hala nola musikazaletasunean edo ezaugarri fisiko zenbait, esaterako bere “ipurdi naroak” (2001: 65). Are gehiago, emakumezko beste protagonistaren izena ere Bioleta da, hots, beste lore mota bat. Azkenik, entziklopedistaren figuran, bere arrazionala izateko ezintasunean, ez da zaila Max Frischen *Homo Faber*-en protagonistaren isla ikustea ere. *Gorde nazazu lurpeaneko* “Asaba zaharren baratza”-n ostera, aurrekoek utzitako herentzia identitarioa zama bilakatuko zaio Polikarpori, eta asaben jarauntsiari ezin erantzuteak errudun sentiaraziko du, Joycen *Artista gazte baten potretako* Stephen Dedalusi gertatu bezalaxe. Azkenik, “Rossettiren obsesioa” laneko Rossetti margolariaren inguruko testuartekotasunaren

ingurukoak xeheki aztertu ditu Olaziregik (2004), eta Mikel Ayerbek *Kandiskyren tradizioa* eleberri laburrekoak (2012).

## 2.1. Intratestualitatea Saizarbitoriaren obran

Testuartekotasunak, hots, beste testuekiko harremanak leku garrantzitsua badu Saizarbitoriaren obran, beste horrenbeste gertatzen da bere testuen arteko harremanarekin. Intratestualitatea gehienetan errepikapenen bidez adierazten da: liburu batetik besterako eszenen antzekotasunak, irudi edo sinbolo jakin baten erabilera, pertsonaien izenak eta izaera... Halere, *Hamaika pausotik* aurrera hasten dira errepikapenak erruz agertzen, are Saizarbitoriaren unibertso literarioaren ezaugarri nagusietako bat bihurtzeraino. Ayerberen esanetan, bere nobelagintzaren bigarren aldi honetan “etengabeko gogoetei, errepikapenei, birplanteamenduei eta bestelako teknikei leku eginaz, memoriaren zein bestelako diskurtsoen eraikuntzak eragin ditzakeen auzi konplexuak islatuko ditu” (2012: 239). Olaziregiren (2001) arabera, memoriari dagokion denbora dago Saizarbitoriaren nobeletan, eta denbora hori errepikapenek egituratzen edo aktibatzen dutela esan daiteke. Errepikapen hauek, beraz, liburu beraren barruko memoriaren denbora aktibatu ez ezik, autorearen obrak bata bestearekin lotzen ditu, egilearen mundu-literarioa osatzen duten obsesio eta kezken berri emanez. Saizarbitoriaren “Hemen nago, liburuez inguratuta, zutaz pentsatzen” narrazioko pasarte honek agian lagun dezake intratestualitaterako joera hau ulertzen:

“Pentsatu ere pentsatzen dut joera horregatik dudala burua nahasia, gauza gehiegirekin betea, pertsonaia askorekin, bata bestearekin gurutzatzen diren gertakizunez, ez hasieratik ez amaierarik duten istorioz gainezka. Egia da, ongi begiratuta, istorio batek ezin duela ez hasierarik ez amaierarik izan; amaitu ohi dena liburua da, baina ez historia ordea; istorioek liburu batetik bestera egin ohi dute salto” (2003: 48).

Esan bezala, eszena batzuk liburu bat baino gehiagotan errepikatzen dira. Esaterako, *Bihotz bin* gudari izandako Samuelek hurrengo pasadizoa kontatzen du: hondartzara bidean erreketek Donostian sartzen ari zirelako berriaz jabetzean, porturantz joan zen barku batean gerrara joateko asmoz. Horrako bidean, ezaguna zuen Bastida izeneko gazte bat ikusi, eskuindar familiakoa berau, eta amari gerrara zihoalako abisua emateko esan zion (91-92).<sup>1</sup> Ondoren, “Gudari zaharraren gerra galdua”-n (18) eta *Lili*

---

<sup>1</sup> Saizarbitoriaren lanetako orrialdeen aipuak parentesik artean zehaztuko dira. Horrela, *Bihotz bi* liburuak aipuak 1999ko 4. argitalpenari dagozkio; *Gorde nazazu lurpeanekoak* 2000. urteko lehenengo edizioari; *Martutene* lanekoak 2017. urteko lehenengo edizioaren bigarren inprimatzeari eta *Lili eta biokekoak* 2015eko lehenengo edizioari. Era berean, Max Frischen *Montauk* nobelako aipuak 2014ko ediziotik,

*eta bioken* (80) istorio bera agertzen da. Lehenengoari dagokionez protagonistari berari gertatua da eta bigarrenaren kasuan Juanjo Lasaren testigantzan, protagonistak Gerra Zibilaren inguruko dokumentala egiten zebilela jaso. Bestalde, aipatutako hiru liburuetan badira Gerra Zibilari buruzko elkarren antza duten beste hiru eszena. Pasarte batean, *Lili eta biokeko* protagonistak dokumentalean jasotako beste gertaera bat dakar gogora. Elgetan sartutako mairuek baserri bat arpilatu zutela dio, baserriko ama-alabak bortxatu nahi izan zituztela eta senarra eragozten saiatu zenean, hura matxetez akabatu zutela. Are, joko metaliterario bat eginaz, Faustino Iturbek aitortzen du, “zeinaren berri liburu batean baino gehiagotan eman duen” (264). *Bihotz bin* (134-139) ere Elgetan sartu ziren mairuak aipatzen dira, hemen, ordea, aldakuntzak dakartza Klararen ahotan jartzen den eszenak. Mairuak baserri batean sartu eta senar-emazteak akabatuko dituzte, etxe alabak ihes egitea lortzen duelarik. Neskak leiho batetik salto egiten du leiho barrenari helduta eta mairu batek matxetez hiru hatzamar mozten dizkio<sup>2</sup>. Hau da “Gudari zaharraren gerra galdua”-n agertzen den eszena bera (59), protagonistak berak jasotako lekukotasunean.

Eszenak ez ezik, pertsonaien izenek ere liburu batetik besterako jauzia egiten dute, baita noiz edo noiz ezaugarriren batzuk ere<sup>3</sup>. Besteak beste, Samuel izena du *Bihotz bin* Hanbre sagardotegiko mahaiaren bueltan denek arreta handiz entzuten duten gudari zaharrak, *Ene Jesusen* bizikleta gainean ibili ohi den pertsonaiak bezalaxe. Izenek, eta *Ene Jesusen* kasuan bizikletaren aipuak Samuel Becketti erreferentzia izan daitekeela iradokitzen dute, bizikletan ibiltzen baita irlandarraren *Molloy* eleberriko protagonista ere. Hau gutxi balitz, Samuel izeneko pertsonaiek “Gudari zaharraren gerra galdua”-ko Amiano pertsonaia dakarte gogora, denek istorioak kontatzea gustuko dute-eta. Era berean, entziklopedia saltzaileak dira *Bihotz bi* eta honen berridazketa den *Bi bihotzeko* protagonistak, eta hiztegi gilea *Hamaika pausoko* Abaitua. Sardinak latan jaten dituzte *Bihotz biko* protagonistak eta *Egunero hasten delakoko* Mauricek. *Lili eta biokeko* Faustino Iturbek, aldiz, palmerak gustuko ditu. Janariarekiko harreman konpulsibo hau,

---

Unamunorenak bere *Obras Completaseko* 1966ko ediziotik eta Rothen *American Pastora*lekoak, aldiz, 2018ko ediziotik.

<sup>2</sup> Izaro Arroitzak aitortzen duenez: “Idazleak berak elkarrizketan azaldutakoaren arabera, bere liburuetan errepikatzen diren beste gerrako historia batzuk bezala, benetako gertakari batean dago oinarritua hau ere; estanko bateko emakume baten historian, hain zuzen ere” (2015: 285-286). Hain justu, Elgetako behatzak moztutako Anttoni Telleria emakumearen istorioa berriki agertu da Ur Handitaneko “Memoria historikoa” saioan: <https://www.eitb.tv/eu/bideoa/ur-handitan-4-denboraldia/6266/150902/memoria-historikoa/>

<sup>3</sup> Pertsonaien liburu batetik besterako joera hau Joyce eta Rothengan ere nabaria da. Lehenengoaren kasuan *Artistaren gaztetako portretako* Stephen Dedalus *Ulyssesen* berragertuko da, eta bigarrenari dagokionez *American pastora*leko Nathan Zuckerman beste hainbat nobeletan ere agertzen da.

jakien inguruko xehetasunak emanez, pertsonaien izaera neurotikoaren adierazgarri izan daiteke, “Rossettiren obsesioa”-ko Juan Martin ezin neurotikoagoak euskal gastronomiaz idazten baitu. Pertsonaia protagonistekin jarraituz, gernu-aparatuko arazoak ditu *Hamaika pausoko* Abaituak, eta beste horrenbeste gertatzen zaio *Lili eta biokeko* Faustino Iturberi. Era berean, *Ene Jesusen* hitzaurreko egile izandako J.J Lasa psikiatrak pertsonaia maila hartuko du hala *Hamaika pauson* nola “Gudari zaharraren gerra galdua”-n. Gainera, *Lili eta biokeko* protagonistari Donostiako nautikoko eszena kontatzen diona ere bada Juanjo Lasa. Flora Ugalde emakumezko protagonista *Bi bihotz* eta bere berridazketan agertzen da. Entziklopedia-saltzailea eta Flora Ugalde ez ezik, baina, lehenengo nobelako Benito eta Bioleta izenak ere itzuri dira bigarrenera, kasu honetan izena bakarrik mantenduz.

### 3. *Martutene*

Bederatzi urte zeramatzan Ramon Saizarbitoriak ezer argitaratu gabe, 2012an *Martutene* publikatu arte. Iñaki Aldekoaren (2012) ustetan, *Hamaika pausorekin* hasitako zikloari nobela honekin ematen dio amaiera egileak. Kritika aldetik txalotua izan zen ia 800 orrialdeko lana. Euskadi Saria ere eman zioten. Laudorioak laudorio, nobelak jorratzen dituen gaien ugaritasuna dela-eta, kritikariek hainbat elementu azpimarratu dituzte nobelak zertaz diharduen jardutean. Jon Kortazarrentzat (2012) “oroimenaren” nobela da, mundu oso baten metafora. Zalantzarik gabe, lan mugarrria da Saizarbitoriaren ibilbidean, idazleak berak aitortu baitu *Martutene* idatzi ondoren askoz libreago sentitzen dela. Joseba Gabilondoren (2012) iritziz, autorearen ibilbidean ez ezik, euskal literaturaren historian amaiera bat markatzen duen nobela “epokala” da *Martutene*, euskal XX. mende “luzeari” muga ezartzen dion *fin-de-siècle* itxurako lana. Eleberria “megaebentoa” da:

(...) ideologia eta hegemonia subordinatu batez hedatu den subjektuaren historia ez dago historia ofizialean, oroitzapenean baizik Gerra Zibileko, frankismoko eta Gatazkako istorio ez-ofizial horietan guztietan, oroitzapenak bakarrik bermatzen duen jarraitutasunean. Beraz, (...) euskal subjektu burges abertzalearen-koherentzia historikoa bermatzen duena oroimena da. Horregatik, Gerra Zibilaren aurretik Gatazkaren amaierara datozen gertaera historikoak durée edo garai historiko bakar gisa azaldu, pentsatu eta sentitzen dituzte eleberriko pertsonaiek, baita gazteenek (Loiola, Zigor) ere, oroimena dela medio, oroimenari esker. *Martutene* beste inon oroitzapen-kateatu gisa kontatu ez den historia luze horren -euskal XX. mende luzearen- kronika da. (Gabilondo, 2012: 92)

Zenbaitzuek burgesiaren inguruko nobelatzen hartu dute liburua. Lander Garroren ustez “Burgesiaren erretratu sakona eta minuziosoa da” (2012), eta Ur Apalategik zera dio: “*Martuteneko* euskal subjektua ez da jada, ez subjektu sabiniano erdi-erromantiko erdi-modernoa, ezta subjektu moderno ikonoklasta, ezta subjektu postmoderno postnazionalista merkatuzalea, baizik eta euskal-subjektu-abertzale-burgestu-neomoderno-erreakzionarioa” (2013: 75). Ikuspegi zabalago batetik ikusiz, Arroितarentzat (2015) bikote harremanen gatazkak eta Euskal Herriko errealitate politikoa dira gai nagusiak, nahiz eta aipatzen diren kontuen zerrenda luzea den, esaterako: euskara eta euskal kulturari buruzko hausnarketak, belaunaldi baten kezak, literaturaren funtzioaren inguruko gogoetak, bizitza eta artearen arteko gatazka, giza-sentimenduak eta beraien konplexutasuna....

Argumentua hurrengoa da: Bi bikoteren gorabeherak kontatzen zaizkigu eleberrian; alde batetik, Abaitua eta Pilar medikuak daude; bestetik, Julia itzultzailea eta Martin idazlea. Halako batean, ordea, Lynn estatubatuar soziologoa iritsiko da, Martinen etxean ostatu hartuz. Hura izango da nobelako bi planoak nolabait lotuko dituen. Liburuaren egiturari dagokionez, 24 kapitulu osatuta dago, atariko eta epilogo zenbatu gabe. Esan bezala, bi planotan kontatuta, Julia itzultzailea da kapitulu bakoitietako ardatza, bikoitietan Abaitua medikua den bitartean. Hirugarren pertsonako zeharkako estiloa (batzuetan librea, gehienetan ez-librea) darabil egileak pertsonaien mundu psikologikoa adierazteko. Zeharkako estilo hori bitarte lortzen du autoreak, Gabilondok (2013) seinatu legez, pertsonaien kontzientzien batetik besterako jauzia erraztasunez egitea. Azpimarratzekoa da elkarrizketa ugarien berri emateko modua, non Julia eta Abaituaren galbahetik pasatako hirugarren pertsona darabilen, nobela osoan zehar bezala, bestalde.

### 3.1. Harreman intratestualak *Martutenen*

#### 3.1.1. Eszenak

Eszenei dagokienez, beroki gorridun emakumearena nabarmentzen da guztien gainetik. *Martutenen* behin eta berriro agertuko da, izan ere, Martinek Juliaren desleialtasuna gogoan zuela idatzi zuen *Beroki gorria jantzita ohe ertzean jesarria dagoen emakumea* narrazioa (302). Orobat, nobelako beste pasarte batean Abaitua eta Pilarren kasuan ere gertatu zela adierazten da, maitale baten enkontrutik zetorrela topatu zuen Abaituak Pilar, ohe ertzean eserita (372). Aitaren desleialtasunaren ondorioz

Martinek pairatzen duen ametsak ere horrekin lotuta dirudi, emakumea ohe ertzean jesarria ageri delako, zutik dagoen gizona ondoan. Beroki gorridun emakumearenak bazuen aurrekaririk Saizarbitoriaren obran, desleialtasuna eta geroko ohearen eszenak berebiziko presentzia duenez gero *Bihotz bin*, protagonistaren oroitzapen mingarrietako bat izanik berau (170). Eszenak ia berdina dira liburu batean zein bestean. Are, esaldiak hitzez hitz errepikatzen dira: “Lo hartu dut”; “nor da”; “garbitu gabe nago”, “ez nazazu abandonatu” eta “ez iezadazu istoriorik hondatu”... Eszena guztietan sexua izango dute. *Martutenen*, esan bezala, eszena bikoiztu eta Martinen nobelan ere agertzen da, errealtatea eta fikzioarekin jolastuz. Desleialtasunaren eszenari jarraitzen dion garaia ere berdintsu adierazita dago *Bihotz bi* eta *Martutenen*, izan ere, bikotea harreman hasierako alaitasunera itzuliko da, paseoak emanez eta tabernetan tragoak hartuz.

Honetaz gain, *Martutenen* badira han-hemenka Saizarbitoriaren beste zenbait obretara daramaten egoerak, inoiz ñabardura txikiak badira ere. Esaterako, Martinen *Maitasuna eta gerla* nobelan senarrak emaztea seigarren solairu batetik botatzen dueneko eszenak berriro *Bihotz bi* dakar gogora, nobela horretan ere horixe gertatzen delako. Halaber, seigarren solairutik botako du bere burua *Lili eta biokeko* emakumezkoak ere. Aipagarria da, bestalde, *Bihotz biko* gaztelaniazko itzulpenak Martinen nobelaren izenburu bera jaso zuela, hots, *Amor y guerra*.

### 3.1.2. Pertsonaiak

Pertsonaiak ere errepikatzen dira, nahiz eta pertsonaiak baino agian zuzenagoa litzatekeen izenez hitz egitea. Edonola ere, badirudi sarritan izena ez ezik izana ere igarotzen dela pertsonaia batetik bestera, hau da, maiz pertsonaien izaeran ere aurreko nobelen arrastoak aurkitu daitezkeela.

Hasteko, Julia eta Abaituaren pertsonaiek *Hamaika pausoko* protagonisten izen berak dituzte. Aldekoak (2013) pertsonaia berak ez ote diren dio, baina zahartuta daudela. Izenean ez ezik (Juan Martinek besterik gabe Martin deitzea nahiago duela dio), izaeran ere Martinen isla du “Rossettiren obsesioa”-ko Juan Martin idazleak, izaera neurotikoa eta guzti. Martinen ezaugarri batzuk *Bihotz biko* entziklopedistaren pertsonaian ere ikus litezke, hau ere, Martin idazten bezalaxe, askotan alferkeriatan eta geroratzen ibiltzen baita, salmentarik apenas egin gabe. Entziklopedistaren ezaugarriaren arrastoa somatzen



da bere jarrera askotan, esaterako, Dideroten Entziklopediako ale bat liburutegia izatean edota emakumeekiko harremanean.

Honetaz gain, Martinen eleberrietan *Bihotz bi* eta honen berridazketa den *Bi bihotz* nobeletako Flora Ugalde ageri da. Gizonezko protagonistari, hots, *Bihotz biko* entziklopedistari dagokionez, ukaezina da Martinen liburuetakoa Faustino Iturberekin duen antza. Obsesiboak dira pertsonaiok (Saizarbitoriaren pertsonaia gehienak bezalaxe, bestalde), izaera neurotikoa dute eta emakumeekin erlazionatzeko zailtasun handiak. *Lili eta bioken* gorpuztuko da Martinen nobeletako Iturbe, oraingoan Floraren konpainiarik gabe, lanbidez idazlea dela zehaztuta, Martinen “Gizona ispiluaren aurrean”-eko protagonista bezalaxe. Egoera berean daude pertsonaiok, eta biek hil-hurren egonda emakume bat ezagutuko dute. *Lili eta bioken* Faustinek Lili izeneko neskatua ezagutuko du, eta Lore izena duen emakume helduaz maitemindu. Deigarria bederen bada Lili, Lore eta Floraren izenen arteko jokoa, hiru emakumek izaera aldetik lotura handirik ez duten arren. Landare izenen sinbolismo ildo honi jarraituz, Bioleta du izena *Bihotz biko* protagonistak ezagutzen duen beste neskek. Flora Ugalderegana bueltatuz, Martinen nobeletakoa Juliarengan inspiratua dagoela esaten da *Martutenen*. Gauzak horrela, Juliarengana *Bihotz biko* Flora Ugalderegan ezaugarriak ere itzuri dira, hala nola: lepoko orezta, pianoa jotzeko zaletasuna...

Bigarren mailako pertsonaietan ere badira izen bat-egiteak. Esaterako, *Martutenen* Harri Gabilondorekin oheratzen den Iberiako langileak Adolfo du izena, *Bihotz biko* Flora Ugalderegan maitalearen antzera, hain zuzen. *Hamaika pausoko* Ortiz de Zarate eta Martuteneko Juliaren senar ohiak, biak etakideak, Zigor gerra izena dute<sup>4</sup>. Azkenik, *Martutenen* Abaituaren pazientea den Maria de Amor puertorikoarra *Lili eta bioken* agertuko oster. Bigarren eleberri honetan txakurra paseatzen ari den Faustino Iturberekin kalean topo egiten du, eta elkarrekin paseatzen dute. *Martutenen*, aldiz, Abaituaren pazientea da eta honek Martini gomendatuko dio, aitarentzako erizain bezala.

### 3.1.3. Sinboloak

Saizarbitoriaren obran hainbat irudi fetitxek garrantzi sinboliko handia dute, obra bat baino gehiagotan errepikatuz. *Martutenen* badago bat, Saizarbitoriaren unibertso

---

<sup>4</sup> Joaquin Ortiz de Zarate koronela eta bere seme Antonio Gerra Zibilan bando frankistan ibilitako militarrek izan ziren, lehenengoa Oiartzun inguruan borrokan zebilela hilik suertatu zen. Saizarbitoriaren beste jolas literario bat litzateke etakide bati (*Hamaika pausoko* Ortiz de Zarate) gerran hildako militar frankista baten abizena ematea.

literario osoa ulertzen lagun dezakeena. Sinbolo Gloria Victis eskultura da, “Rossettiren obsesioa”-n jada aurrekaria zuena. Eleberri horretan, protagonistak eskultura ikusten du Londresen, Victoriak erakutsia. Paradoxikoa da oso emakumearen izena, eskultura galtzaileen omenezkoa izanik. Bestalde, Olaziregik (2004) seinalatzen duenez, Parisen eta Bordelen baino ez dago horrelako eskulturarik, alegia, Londresen dagoelako hori egileak asmatua da. Bordelekoa da *Martutenen* agertzen dena eta Abaitua, Kepa eta Lynnek hara egindako bidaian ageri da. Eskulturan aingeru batek soldatu baten gorpua besoetan eusten du, azken honek eskuan porrotaren ezpata daramala. Aingeruak, berriz, hegoak altxatuta ditu. Monumentuak derrota gozoaren ideia transmititzen du, porrot duinarena. Juan Martinek zein Abaituak, biak galtzailearen kulturen hazitakoak, gudariak gerra duintasunez galdu izanaz harro, eskulturren esanahiarekin bat egiten dute. Biek ala biek, gainera, hegoak eroriak ikusten dizkiote. Lynn eta Victoriari ere, azken honi batez ere, sinpatikoa iruditzen zaie porrot gozoaren ideia. Juan Martin eta Abaituaren izaera malenkoniatsuaren bitartez adierazten da galtzaileekiko txera. *Martutenen* hari argumentalean zeresana izango du, estatuak hegoak gorantz edo beherantz ote zituen jakitea. Abaituaren maitatzeko ezinaren sinbolotzat agertuko da orduan hegoak eroriak ikuste hori.

Beroki gorriak ere irudi fetitxearen antza hartuko du, eszenak aipatzean deskribatu bezala. *Bihotz bi* zein *Martutenen*, baita Martinen eleberrian ere, emakumearen desleialtasunaren sinbolo da. Martinen ametsean jesarria dagoen neskak ere, izokin koloreko gonazpikoa darama jantzita, gorritik hurbil dagoen kolorea, beraz. *Lili eta bioken*, oster, zerbait askoz ere baikorragoa sinbolizatzen du Loreren beroki gorriak, maitasunaren adierazgarri da, hain zuzen. Zuhaitzek ere badute presentzia nabarmenik *Martutenen*, Saizarbitoriaren beste hainbat nobelatan bezala. Martinen eta Juliaren etxea magnolia grandiflora batek zedarritzen du. *Hamaika pauson* ere zuhaitz hori da Juliaren etxe ondoan ageri dena, sarritan Abaituaren burutazioen lagungarri. Markos Zapiainen (2015) ustez, heriotzaren aurreko kezka sinbolo eta aringarri bezala agertuko da landare erraldoia. Halakorik esan liteke, berau *Hamaika pausoko* Abaitua zein *Martuteneko* Martinengan kezka errepikakorra denez gero. Bestalde, irudi fetitxeak aipatzean ezin oharkabea pasatzen utzi liburuen barneko liburuak, hots, *mise en abyme* gisa txertatzen diren idazkiak. *Martutenen*, Max Frischen *Montaukek* beteko du idazki fetitxearen funtzioa, baita neurri txikiago batean Martinen idazkiek ere. Orobat, gainerako zenbait obretan ere badago horrelako liburuen arrastorik, hurrenez hurren:; *Hamaika*

*pauson* Iñaki Abaituak Daniel Zabalegiren heriotzaz idazten diharduen nobela; “Rossettiren obsesioa”-n Dante Gabriel Rossettiren poemak, Juan Martinek galdutako nobela eta Eugeniari idatzitako oharra; Faustino Iturbe Otzetako Gerra Zibileko gertakariak gaitzat hartuta idazten dabilen nobela *Lili eta bioken*. Emakumeei bidalitako oharrek zeresana dute hainbat nobeletan, esaterako “Rossettiren obsesioa”-n Juan Martinek Eugeniari bidaltzen diona. Hori horrela, *Bihotz bin* eta *Martutenen* senarrek maitaleak emazteari bidalitako poema topatzean dute desleialtasunaren berri.

#### 3.1.4. Datak

Datek ere garrantzia dute Saizarbitoriaren nobeletan. Pertsonaia askok gogoan dituzte data historiko zenbait, baina iraganean ez ezik, orainaldian ere badute zeresana datek. Nolabait, Saizarbitoriaren nobeletan iraganak duen zeresana azaleratzen du daten agerpenak.

*Martuteneko* Julia eta Abaitua gai dira data batzuk gogoan atxikitzeke eta horietako batzuk berberak dira bien kasuan, gainera. Hauexek Abaituak aipatzen dituenak: “1936ko uztailaren 18a, 1813ko abuztuaren 31, 1931ko apirilaren 14a, 1789ko uztailaren 14a, 1975eko irailaren 27a” (203). Esan bezala, hauetako batzuk Juliak ere aipatzen dizkio Lynni, hain zuzen ere bere liberatzaileek Donostiari su eman zioten eguna (1813ko abuztuaren 31a) eta frankismoko azken fusilaketak egin ziren data (1975eko irailaren 27a). Izaro Arroitzak (2015) adierazi legez, data hauetako batzuk etengabe errepikatzen dira Saizarbitoriaren unibertso literarioan, batez ere Juliak aipatzen duen 1936ko irailaren 13a, hots, erreketek Donostia okupatu zuten eguna. Data honek berebiziko adiera sinbolikoa izango du *Bihotz bin*, Olaziregik (2001) esaten duenez, irailaren 13an haserretzen baitira protagonista eta emaztea, eta egun berean ezagutzen du lehenengoak Bioleta neska gaztea (58). Bestalde, irailaren 13koa da Mikele de Abando eta protagonistaren aita agertzen diren argazkia, eta gerora jakingo denez egun horretako harremanaren fruitu da Bioletaren ama, protagonista eta Abandoren biloba Bioleta senide bilakatuz. Irailaren 13a da, halaber, *Martuteneko* Juliak, eszedentzia amaitzen zaionez, Diputazioko itzultzaile lanera bueltatu edo betirako utzi erabaki behar duen data, bere seme Zigorren urtebetetzea izateaz gain. Hau gutxi balitz, egun horretan ezagutzen du Kepa, eta Zigor zenak semeari utzitako gutuna apurtzea erabakitzen. Esan nahi baita, bere bizitzaren gaineko eta semeari transmititu nahi liokeenaren inguruko erabaki garrantzitsuak hartzen ditu egun seinalatu horretan.

### 3.2 Testuartekotasuna *Martutenen*

Esan daiteke halako entziklopedia kutsua duela *Martutenek*. Eleberrian zehar idazleen aipuek, erreferentziek eta komentarioek ia ez baitute etenik. Aipatzen direnak gehienbat idazleak badira ere, ez dira gutxi musikari eta margolariei egindako erreferentziak ere. Agertzen direnetako batzuk baino ez aipatzearren: James Joyce, Samuel Beckett, Proust, Flaubert, Sandor Márai, Virginia Woolf, Natalia Ginzburg idazleak; Hopper eta Modigliani margolariak eta Ravel musikaria. Gainerakoak amaierako eranskinean aletuko dira. Egile ugarien artean, halere, Max Frisch suitzarra izango da nabarmenen agertuko dena. Oro har Frisch, baina bereziki egile honen *Montauk* nobela. Aipatuak diren hauez gain, maila inplizituan ezaguna zaio nobelari Philip Roth gisako baten eragina, pertsonaien miazte psikologikoa eta giro dekadenteagatik. Joseba Gabilondoren (2013) arabera, Thomas Mannen *Mendi magikoaren* antza ere badu bere *fin-de-siècle* itxuran.

#### 3.2.1. Testuartekotasun esplizitua

Erreferentziak sarritan aipu gisa artikulatzen dira, pertsonaiek askotan idazleen esanak aipatzera jotzen baitute. Halaber, liburu batzuen gaineko iruzkinak egiten dira eta literatura pertsonaien arteko mintzagai arrunta da, bereziki Julia eta Martinen kapituluetan, literatura zaleak diren aldetik. Dena dela, agerikoa da aipamen denek ez dutela garrantzi maila bera. Hau da, badirudi autore, margolari eta abar batzuen aipamenak pertsonaien maila kultura nabarmentzeko-edo baino ez direla egiten, edota giroen deskribapenerako. Beste batzuek, ordea, nobelaren gaiei zein autorearen eraginei neurria hartzeko balio dute.

##### 3.2.1.1. *Montauk*

Badago denen artean nabarmentzen den obra bat, Saizarbitoriak ia-ia pertsonaia mailara igo duena. Obra Marx Frisch idazle suitzarraren *Montauk* dugu. Saizarbitoriak aitortua zuen lehendik Frischekiko zaletasuna, besteak beste gomendatzeko bost liburuen artean egile honen *Stiller* aipatuz, eta baita 2002ko elkarrizketa batean harengana gerturatzen hasia zela aitortuz ere. “Nobela-matriuska” deitu zion Hasier Etxeberriak (2012) *Montauki*, eta Saizarbitoriak berak aitortu du *Martutene* izenburua ez zuela ausaz jarri, liburuari erreferentzia egiteko baizik, biak m hizkiaz hasitako leku-izenak izanda<sup>5</sup>.

---

<sup>5</sup> Aipatutako en erreferentziak hurrengoak dira. *Stillerren* gomendioa Hasier Etxeberriaren *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* (2002) liburuan egin zuen; Frischekiko gerturatzeaz *Euskonews* web

Ezer baino lehen, ordea, eta ondoren datorrena ondo ulertuko bada, komeni da *Montauken* argumentua azaltzea. Liburuan Max izeneko idazleak eta Lynn editoreak New York ondoko herrixka batean igarotako asteburua kontatzen da. Asteburua xeheki kontatzeaz batera, Maxek aurreko harremanetako eta oro har bere bizitzako oroitzapenak gogoratuko ditu. Gabilondok (2013) seinalatzen duenez, Saizarbitoria *mise en abyme* teknikaz baliatzen da aipatutako eleberria berean txertatzeko. Aipatu bezala, joera ezaguna da Saizarbitoriaren ibilbidean, izan ere, nobela bat idazten diharduten idazleak dira protagonistetako batzuk. Hemen, ordea, eleberri erreala da testuan sarrarazten dena. Omenaldia izateaz gain, Saizarbitoria ez da horretara mugatzen, eta nobelaren protagonismoa muturrera eramaten duela esan daiteke.

*Montauk* eleberriaren presentziak Saizarbitoriaren nobelako errealitatea itxuratuko du, pertsonaiak kasualitatez eta bat-egite ankerrez betetako lurraldean sartuz. Azken honetan Frischen *Homo Faber* eleberriaren itxura ere badu. *Montaukek* objektu fetitxe gisa jokatu du, lehen esan legez errealitatea egituratuz eta aldaraziz, baita pertsonaien jokaeran eragiten eta beren arteko harremanak zehaztuz ere. Horrenbestez, eszena jakin batzuk *Montauketik* Saizarbitoriaren obrara jauzi egingo dute. Ez hori bakarrik, liburua pertsonaien gogoeten lagungarri ere izango da, lantzen dituen gaiak zer pentsatua ematen baitiete. Liburuak objektu fisiko bezala ere izango du garrantzirik, izan ere, hura izango da Kepak Harriri emandako liburua, bat-egitetan lehenengoa den enkontruan. Bi antzekotasun nagusi dituzte eleberriek, baina. Frischen eleberrian, *Martutenen* bezala, neska gazte eta bera baino askoz zaharragoa den gizon baten arteko harremana kontatzen da. Halaber, bi eleberrietako neskek Lynn izena dute. Antzekotasun nagusi horietaz landa, esan bezala ugariak dira *Montauki* egindako erreferentziak.

Bikote harremanek leku garrantzitsua dute hala *Montauken* nola *Martutenen*. Frischen eleberriko Maxek maitasunaz, eta oro har gizon eta emakumeen arteko harremanez dihardu, eta horrelakoetan sortzen diren gatazka eta arazoak ere gai arrunta dira *Martutenen*, pertsonaia nagusiak bikoteak izanik. *Martuteneko* pertsonaiek *Montauk* baliatuko dute gai horien inguruan hausnarketa egiteko. Esaterako, Abaitua ados dago *Montaukeko* “emakume batekiko lehen aldia beti da lehen aldia” (492) esaldiarekin, baina ez “emakume guztiek plazer gorenaren istantean antza dute” (604) delakoarekin. Halaber, Frischen beste esaldi bat ere aipatzen du, emaztea zelatatzen zueneko gogoratuz: “bere

---

atariari emandako elkarrizketan: <http://www.euskonews.eus/0164zkb/elkar16401eu.html>. Azkenik, *Martutene* eta *Montaukeko* izenburuen parekotasunaz, Sautrela saioan: <https://vimeo.com/39474356>

emaztea beste ohe batetik datorrena ohartzen ez dena, ez da gizon samurra” (465). Esan daiteke, oro har, antza dutela Maxek eta Abaituak. Gorago esan bezala ados daude emakumeen inguruko zenbait ustetan, eta handia da bata zein bestearen bizitzan eta lanbidean emakumek duten presentzia, bata ginekologoa eta bestea emakumeak literatura-gaitzat hartzen dituen idazlea direnez. Biak dira herabe emakumeen aurrean, eta biek dute emakume bat gustuko izatean apeta hutsa delako sentipena. Azkenik, ezin argiagoa da bi nobeletako maitasun istorioen parekotasuna eta Abaituak joera du berea Frischen eleberriko istorioarekin konparatzeko.

Errua da, zalantzarik gabe, *Martuteneko* gairik nagusietako bat. Abaitua ginekologoa hainbat gauzengatik sentitzen da errudun. Kontsulta batean Teresa Hoyos izeneko pazienteaz abusatu izanaz (541) damu da, eta erru sentimendu sakon batek zamaten du. *Montauken* Max protagonista ere errudun sentitzen da txikitako laguna zuen eta orain bizilaguna duen den Haller andereari ihes egiteaz. Emakumea ezindua dago, ohetik altxatu ezin dela, eta bere emazteak sarritan bisitatzen duen arren, Max ahal duen guztietan ihes egiten saiatzen da. (59). Era berean, Max errudun sentitzen da bikotekide batekin izandako abortu batengatik, eta baita alabarekin duen harremanagatik ere. Erru kate horren ondorioz pasarte batean “Lynn no será el nombre de una culpa” (136) dio, Abaituak errepikatzen duena. Honetaz gain, pasarte batean Juliak aipatzen du bere liburuetakoa batean Frischek kontatzen duen pasadizoa, errudun sentitzen zela mendian behin topatutako alemana akabatu ez izanaz. Abaitua ere errudun sentituko da jasotako zama identitarioa alde batera uzten saiatzen den bakoitzean, gaztetan Parisera zihoala aitaren lagun batek botatako manua gogoan: “y no te olvides de que eres vasco” (605). Abaituaren kasuan, gorago landutako galtzaileen kulturak erru sentimendua larriagotuko dio, eta *Montauken* ikus daitekeenez, Maxek ere badu horrelakorik, bere buruaren kontra xakean ari dela, hala esaten baitu: “La mayoría de las veces pierdo, o sea, me identifico con las piezas perdedoras cuando de pronto se produce el mate, sin discusión” (119).

Bi eleberrien beste gai amankomunetako bat hausnarketa metaliterarioa da. Bai *Montaukeko* Maxek, bai *Martuteneko* pertsonaia batzuek, bereziki Martinek eta Juliak, literaturaren funtzioaz edota fikzioa eta errealitatearen arteko harremanaz gogoetatzera joko dute. Harrik *Montauki* buruz egiten duen komentario batek, esaterako, fikzioa eta errealitatearen arteko harremanaz hausnartzera bultzatuko ditu pertsonaiak. Harriren galdera zera da, Max Frisch idazlea ote den nobelako protagonista, hots, nobela erabat autobiografikoa ote den (166). Pasarte horretan aipatzen du Martin idazleak liburuan

zehar behin baino gehiagotan agertzen den ideia, hots, “errealitatea fikzioa baino bitxiagoa izan liteke, baina fikzioa egiaziagoa da” (167). Martinentzat gai hutsala da, bere ustetan dena baita fikzio. Martinek, hortaz, berau hobetsiko du errealitatearen aldean, egiaziagoa delakoan<sup>6</sup>.

Azpi-atal honi amaiera emateko, bi liburuetan agertzen den eszena bat aipatu beharra dago. *Montauken* emazte ohiak materia literario gisa erabili dezan debekatzen dio Maxi, euren harremaneko pasadizoak literatura gai bezala erabiltzea eragotziz (79). *Martutenen* ere beste horrenbeste gertatzen da, zenbait ñabardurekin, baina. Gauzak esajeratzen dituela deritzon arren, ezinbestean onartu du beti Juliak Martinentzat bazka literarioa izatea. Azkenerako, baina, kexu da haren krudeltasunaz:

Min handiena ematen diona gauzak gontzetatik ateratzea da, bihurritzea, guztiari punta ateratzea. (...) Hori da egiten duena, miseriak ehizatu. Narrasti horri ez zaizkio koloretako tximeletak interesatzen. Etsigarria da beren karikatura krudela egiteko tema –biona, ez baita errukitsuagoa bere buruarekin– inoiz zerbait noblea erakutsi ez izana, zaborra bakarrik. Nondik datorkio premia hori? Garai batean pentsatu zuen idazlearen ezaugarri propioa zela, orain telebistak agerian uzten duenez, gizartean zabaldua da noski miseriak erakutsi behar hori. Zerikusi handia duela pentsatu ohi du Juliak telebistan beren intimotasuna mundu guztiaren aurrean aireratzen azaltzen den jendearekin. Alde bakarra, Martinek, konbentzionalki, arteari eta kulturari lotzen zaion formatua erabiltzen duela (173)

Behin, ordea, ez publikatzeko eskatzen dio. Juliaren desleialtasunaren ostean Martinek *Beroki gorria jantzita ohe ertzean jesarria dagoen emakumea* eleberria idatzi zuen Ainhoan egindako egonaldi batean, gertatutakoa Flora Ugalde eta Faustino Iturberen beste istorio baten bidez islatuz. Eskakizunaren aurrean, Martinek ez zuela horretarako asmorik erantzun zion. Pasarte hori berriz ere hausnarketa metaliterariorako baliatzen du autoreak, Martinen ahotan hurrengo esaldia jarritz: “ez dago ezer bizitzaren erabilgarritasun literarioaren gainetik” (175). Badirudi horixe dela Maxen ustea ere, *Montauken* esaten denez, “el escritor recela de los sentimientos que no se prestan a ser publicados” (17).

Aurreratu legez, *Montaukeko* pasarte batzuk berrantzezten edo erreproduzitzen dira. Adibidez, Max eta Lynn kostaldetik paseatzen doazen pasarteak, non emakumea

---

<sup>6</sup> Dena den, Martin errealitatetik abiatuko da fikzioa sortzeko orduan, errealitatea izango du sorkuntzarako oinarri, beraz bere liburuak beti dira errealitatea eta fikzioaren arteko joko etengabea. Honen adibide da *Beroki gorria jantzita ohe ertzean jesarria dagoen emakumea*, Juliaren desleialtasunean oinarritua. Maxek ere errealitatean dakusa sorkuntzaren oinarria: “La literatura conserva el momento, para eso existe” (77).

aurrerago doan gizonak atzetik begira jarraitzen diola, Lynn eta Abaituaren Sagastizabaletik irteten direneko pasartean islatzen da. Beste horrenbeste gertatzen da emakumeari gizonaren gelan/kontsultan zerbait ahazten zaion eszenarekin (*Montauken* su-piztekoa izango da eta *Martutenen* hain zuzen *Montauk* eleberriko fotokopiak gordetzen dituen karpeta urdina). Bestalde, Martin idazleak eta Lynnek, *Montaukeko* protagonisten antzera, ping-pongean jolastea gustuko dute. Era berean, Lynn eta Abaituaren arteko enkontruetan, Lynnen biluzteko erak (365) Frischen eleberriko Lynna gogorarazten du. Bi obretan asfixiak jotako umea agertzen den eszena dago. Frischen eleberrian Maxen lankide baten umea da, *Martutenen* ez bezala, hiltzen dena. Amaren ondoezaren aurrean, Maxen eginkizuna izango da aitari komunikatzea (99). *Martutenen* ere ospitaleko zuzendarien utzikeria dela-eta Abaituak aurre egin beharko dio koanetako atresia duen ume bati. Operatu ostean, Abaitua amarengana joango da, sentitzen duela esatera (547). Azkenik, Martinen nobeletara ere helduko da *Montauk*. “Lore sorta” izeneko narrazio laburrak, izan ere, Frischen liburuko eszena batekin pareka liteke. Eszenetan senarrak ospitalean dagoen emazte gaixoari egindako bisitaren kontaketa egiten da. Bi eszenetan senarrek ez beste norbaitek loreak bidali dizkio emazteari.

Dena den, eszena errepikatuak ez ezik, Frischen eleberriko pasarte eta esaldiak ere hitzez-hitz erabiltzen ditu Saizarbitoriak. Hortxe dago, besteak beste, Abaituak bere kabutan sarri errepikatzen duen Frischen liburutik hartutako esaldia, “Lynn ez da erru baten izena izango”. Halaber, *Martutene*-eko Lynnek *Montauk*-eko izen bereko pertsonaiak erabilitako esaldiak erabiltzen ditu etengabe: “You are a fortunate man”; “Hi”; “You love her”; “Just relax”... Abaituak Lynn deskribatzeko erabilitako modua ere, “erdi nurse, erdi ondina” (253), beste eleberrian dago. Maiz pertsonaiek egindakoa Frischen nobelako protagonistek egindakoarekin konparatzen dute, edota beren ekintzak eleberriaren arabera epaitzen. Adibidez, Abaitua medikuak nahiko luke semearekin *Montaukeko* protagonistak alabarekin duen gisako harremana izatea, hots, “ez erraza ez zaila” (208).

#### 3.2.1.2. Lizardi eta Unamuno

*Martuteneko* Martinek Xabier Lizardiren poema baten izenburu bereko nobela idatzi zuen, *Bihotzean min dut* izeneko, nobelan zehar Juliak itzultzen diharduena. Nobela Martinen ikasle baten aitaren hilketan oinarrituta dago. Ikaslea Lizardiren inguruko lana egiten ari zen, eta halako batean aita Guardia Zibila akabatzen du ETAK. “Bihotzean min



dut, min etsia” (228) dio neskatoak irakaslea bisitan doakionean, eta hortik nobelaren izenburua. Izaro Arroitzak (2015) seinlatu bezala, poetari amonaren heriotzak eragindako mina, bortizkeriaren biktima batek pairatzen duenarekin lotzen du idazleak, Lizardiren poemako hitzak neskatoaren ahotan jarriz. Poemako izenburua *Martuteneko* beste pasarte batean ere agertzen da, zehazki, Lynnek (Juliarengandik ikasita) Abaituari esaten dizkio bion lehenengo maitasun enkontruan. Lizardiren hitzak, liburuaren amaiera aldera ikusiko denez, maitasunaren zaurien sinbolo dira oraingoan. Beraz, testuartekotasuna kasu honetan bikoitza litzateke, nobela intradiegetikoan gatazkaren inguruko kontuak aletuko ditu eta aldiz, Lynnen esaeraren bidez, maitasun harremanaren abiapuntua bilakatuko da; nolabait, gatazkari eta maitasunari erreferentzia eginaz, hala nola, *Bihotz bin* gerra eta bikote harremanak nahasten diren bezala. Edonola ere, ez da Saizarbitoriak Lizardiren hitzak sinbolikoki darabiltzan lehenengo aldia, hortxe dago “Asaba zaharren baratza” narrazioa ere. Lizardik poeman kontakizun zuen baratzaren berpiztea (“Euskal pizkundea”-ren metafora) amesgaizto bilakatu zaio Polikarpo protagonistari, asaba zaharren baratzak, aurrekoek utzitako oinordetzari ezin erantzuteak errudun sentiaraziko du<sup>7</sup>. Errudun sentiaraziko da, halaber, *Martuteneko* Abaitua ere, Zapianen (2015: 54) hitzetan aberriaren “superniaren exigentzia etikoa asetzen” asmatzen ez duelako. Abaituak, halere, erruduntasuna neurri batean bederen kitatuko du, ama peruarra duen Peru umea Sagastizabal baserrian jaiotzen lagunduz. Iker Legarretak (2018: 66) adierazi legez, Abaituak bere burua integristatik ezin libratu izanagatik, Peruri “gizon librea izan dadin” opatuko dio.

Azkenik, Lizardiren aipamena Saizarbitoriak euskara eta euskal kulturarekiko duen konpromisoaren adierazle gisa ere har liteke. Aldekoaren (2018) arabera, liburutegian Dideroten entziklopediaren ale bat duen Martin idazleak Lizardirekiko apustua egiten du, bestelako poetak baino “bereagoa” sentitzen duelako. Jakina denez, lehen euskal poeta modernotzat ageri da Lizardi, hau da, ondo lotzen da Martinek zein Abaituak bere egiten dituzten balore (ustez) aurrerakoi eta liberal baina euskaltzaleekin. Era berean, Juliak XIX. mende amaierako Donostiako euskaltzale liberalak miresten ditu, euskara orduan ez baitzegoen ondare abertzaleez (horren) hornitua. Lizardi ondo egokitzen zaio euskaltzale burges, hiritar eta liberalaren itxurari.

---

<sup>7</sup> Jakingarria da “Asaba zaharren baratza” poema Lizardik Polikarpo Barrena izeneko bati eskaintzen diola, hots, Saizarbitoriaren nobelako protagonistaren izen bera duen bati.

Unamunoren esanahia oso bestelakoa litzateke, izan ere, XIX. mendeko Donostiako euskaltzale liberal horiek ez bezala, euskararen arerio sutsua zen bilbotarra. Unamunoren aipamena egiten da *Martuteneko* hainbat pasarteetan, eta nago nobelako pertsonaien pentsaera ezagutzeko garrantzi handiagoa duela honek Lizardik baino.<sup>8</sup> Abaitua, Martin eta Julia abertzaleak dira, eta badute sentimenduek, hau da, alderdi irrazionalak abertzaletasunaren barruan duen garrantziaren berri. Martinek eta Abaituak, esaterako, Ilustrazioaren oinordeko sentitu arren, betiko lau kluxe ilustratuak botata abertzaletasuna mespretxatzen dutenenganako ezinikusia dute. Euskal kanta zaharrek begiak bustiarazten dizkiote Juliari. Azken honek, gatazkaren ondorioz indarkeriak euskal kultura zikindu duela jakinik, ez lioke gerra garaiko abertzale zintzoen ondarea transmititzeari uko egin nahi. Aldekoak dioenez, “[idazleak] ‘Otzeta’-ko Eszilaren eta ‘Martutene’-ko Karibdisen artean nabigatu beharko du, iraganaren eta orainaren artean, emozio eta desira sutsuen eta arrazionaltasun zibilizatuaren artean” (2018: 37). Aldeak alde, parekotasunak ikus litezke Unamunoren pentsaerarekin. Joxe Azurmendiren (2012) esanetan, arrazoimenaren eta bihotzaren arteko borroka da Unamunoren filosofiaren giltzarri nagusia. Hauxe esaten da *Paz en la guerra* eleberrian Unamunoren alter ego-a datekeen Pachicoz: “Pachico casi lloró tarareando el *Adiyo* de Iparraguirre, al trasponer la peña de Orduña, dejando a su Vizcaya para ir a caer en medio del tumulto de ideas nuevas en que hervía la corte” (Unamuno 1966: 127). Gaztetan bolada euskozale sukartsua pasa eta gero, Unamunok aipatutako borroka konponduko du, baina espainiaren alde. Historiak baztertutako herrialdetzat zekusan Espainia (Euskal Herria bezala), baina historiarik eza mistikoki laudatuko du, are Espainia Europaren “pizkundearen” abangoardiatzat hartuz. Euskal Herriari dagokionez, jakina denez, oso bestelako bidea hartuko du, historian sartzekotan euskaldunek euskara alde batera utzi (hots, mintzoz espainol izan) beharra zutela aldarrikatuz. Azurmendiren arabera, *Paz en la guerra* oraindik kontraesanetik idatzitakoa da, eta horrek lotzen du *Martutenerekin*. *Martuteneko* pertsonaia nagusiek, ordea, ez diote ondare abertzaleari uko egingo. Abertzaletasunaren alderdi irrazionala ezinbestean onartuko dute, “asaba zaharren” ondareari leial izateak dakartzan buruhauste eta erru sentimenduei men eginik. Dena dela, Gabilondok seinalatu bezala, “ulertzen dute azken egia, bizitzaren zentzua (...) proiektu nazionalista liberaletik kanpo dagoela” (2013: 51).

---

<sup>8</sup> Hain zuzen ere, bilbotarraren euskara eta Euskal Herriaren inguruko iritziez gain, Unamunoren *Orhoit gutaz* poema agertuko da *Martutenen*, Unamunok Lehen Mundu Gerran hildako euskaldunen omenez eginikoa. Bestalde, aurretik Unamunok agerpen esanguratsua zuen *Hamaika pauson*.

Ondorioz, bai Juliak bai Abaituak, semeak zama identitariotik libratu nahi dituzte. Abaituak ez luke semeak aita gudaria gehiegi idealizatzea nahi, haren esanetan Pilarren aita frankista baino “fatxagoa” izan zitekeen heinean. Juliak, bere aldetik, semeari Zigor aita etakidearen ondarea (gutun forman) transmititzeari uko egiten dio. Ildo beretik, gorago esan bezala Abaituak “gizon askea” izan dadin opa dio Peru jaioberriari. Dena den, nabarmentzekoa da euskarari eusten diotela pertsonaiok, semei egindako transmisioan ere bai. Azken finean, euskal arbasoez semearekin diharduela, guztia Juliaren aipu honekin laburbildu liteke:

Esan nahi dio ez duela bere burua ez benetako ez ustezko arbasoenganako leialtasunez behartua ikusi behar (...) Besterik gabe zintzoak izaten ahalegindu behar dute inor kaltetu gabe bizitzen, kultura eta paisaia errespetatzen gizadiaren lorpena den jakiteari leialak izaten. (296)

### 3.2.2. Testuartekotasun inplizitua: Philip Roth

Publikoki adierazi izan du Saizarbitoriak Philip Rothekiko miresmena<sup>9</sup>. Eta badute ezaugarri amankomunik bata zein bestearen nobelagintzak. Gainerako nobeletan ez hainbeste, baina *Martutenen* agerikoa da estatubatuarraren obraren eragina. Eleberria, gai zein forma aldetik, Rothen *American pastoral* eleberriarekin lotu daiteke. Bi eleberrietan hurrengo osagaiak ikus litezke: pertsonaien miaketa psikologiko sakonak, fikzioa sortzeko gertaera historikoak oinarri hartzea, burgesia “berria”-ren konplexu eta ezinak ezin hobeto adieraztea... Orobat, bi eleberriok mundu oso baten erretratua egitea dute helburu, bakoitza bere gehigarri identitarioarekin, *Martutene* Euskal Herriaren sinbolotzat har genezake, eta *American pastoral* 60ko hamarkada amaierako AEBko iruditzat. Gabilondoren esanetan, hurrengo galderari erantzun nahi diote eleberriok: “zer pasatu zaio klase ertain (-garai)ko amets liberal, progesista, nazionalistari? Zer gertatu zaio 60ko hamarkadaren inguruan hazi zen belaunaldiaren amets eta utopia liberalari?” (erreferentzia). *Martutenen* burgesia nazionalistak erantzun beharko dio galderari, Rothen eleberrian, berriz, jatorri judutarreko burgesia “berria”-k. Zerbait puskatzen da bi eleberriotan, ordura arte trinkoa zirudiena pitzatu. Bi kasuetan, gainera, seme-alabak dira eztanda gauzatzen dutenak. *American pastoralen* Seymour Levov buru duen familia eredugarriaren alabak Vietnamgo gerraren aurkako mobilizaziotan parte hartzen du, talde terrorista batean sartuko da azkenean eta bonba batez lau lagun hil. *Martutenen* Abaituaren seme Loiolak lagun batzuei familiako belaontzia utziko die, bertan armak

---

<sup>9</sup> Urretxun emandako hitzaldi honetan, adibidez, “albiste txartzat” jotzen du Rothek idazteari utzi izana: <https://www.youtube.com/watch?v=mASWeJX2Zu8&t=21s>

gorde ditzaten. Atxilotutakoen epaiketa hastear dagoela, Abaituak semea AEBetara joatea nahi du. Esan beharra dago, dena dela, lehendik ere familia pitzatzeko bidean zegoela, Pilarren deslailatasuna dela-eta. Hortaz, egonkorra zirudiena arrakalatzan hasiko da bi eleberrietan, mundu baten amaiera iragarriko da. Arazoari eleberri batean eta bestean ematen zaion erantzuna ezberdina da ordea. *American pastoralen* suntsiketa erabatekoa da, alabak sistemari egindako ukoa bortitzagoa delako, eta bere suntsipenean familia osoa eramango du berarekin. Seymourren aitak eskularru fabrikarekin eraikitako inperio txikia bertan behera geratuko da, Seymour Levov ez da arazoa konprenitzeko gai izango eta hala hilko da. Suntsipen absolutua ezin hobeto adierazten da nobelaren azkenengo pasarteetan:

(...) se rió, y gozó, como algunas personas, históricamente, siempre parecen hacerlo, por la extensión que había adquirido el desenfrenado desorden, gozó inmensamente de la invulnerabilidad, la fragilidad, el debilitamiento de las cosas que eran supuestamente robustas. Sí, habían abierto una brecha en su fortificación, incluso allí, en la seguridad de Old Rimrock, y ahora que estaba abierta no volvería a cerrarse. Jamás se recuperarán. Todo está en su contra, todos aquellos a quien no les gusta su clase de vida. ¡Todas las voces del exterior, condenando y rechazando su vida! (Roth 2018: 510-511)

Rothenean ez dago transmisioaren ez liberazioaren inongo arrastorik, beraz. *Martutenen*, ostera, Julia erabat askatuko da, semearentzat hildako aita etakideak utzitako gutuna puskatuz, eta Martinengandik bananduz, semea eta Keparekin batera Kubarantz bidaia egiteko. Abaituaren kasuan ez dago horren garbi. Saiatuko da bolada batez aurrekoek jarauntsitako zama nazionalistatik eta *galtzaileen kulturatik* bere burua askatzen. Neurri batean Lynnek akuilatuko du ospitaleko zuzendariei aurre egiten, Teresa Hoyosekiko errua kitatzen, Peruren jaiotzan laguntzen... Saiakerak saiakera, bere kasuan *galtzaileen kultura* nagusituko da (Gloria Victiseko aingeruari hegoak beheraka ikusiko dizkio) eta Pilarrengana itzuliko da, Milanora ihes eginez. Abaitua bere seme Loialari zamarik ez transmititzera mugatu beharko da. Zamatik libratu ote den ohartzeko, argigarria da azkenengo pasarteak, non Abaitua aireportuko liburu-dendan *Montaukeko* ale bat ikustean Lynnez oroitu (Frischen liburuan ez bezala, hemen Lynn bai baita “erru baten izena”) eta Zabaletarekin topo egin eta gero, honako hau irakurtzen dugu:

DEPARTURES. SALIDAS. IRTEERAK. Milanorako IB 5545 hegaldia hirugarren ageri da zerrendan. Eman diote atea. Pilar altxatzen eta bereganantz etortzen dakusa, pauso batzuk eman eta gelditu egin da, Abaitua bera ere patrikan sartzeko handiegia den liburuan gorde nahirik gelditu denean. Ondoren, berriro ibiltzen hasitakoan, itxaron egin dio Pilarrek. (...) Harengandik pauso

batzuetara gelditu da berriz zer esan ez dakiela. Panelaren karraka hotsa osterera ere. Ez du begiratu baina hotsa isil dadin itxaron du. Pilarrek egunkaria eskuz aldatu eta eskuinekoa luzatu du, ukitzeko asmoa balu bezala baina egitera iritsi gabe. Jausten utzi du berriz. Abaituak isilik dirau.

“Baina zer gertatzen zaizu orain?” entzun dio. (766)

#### 4. Ondorioak

Lan honen asmoa Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* eleberriko testuartekotasuna aztertzea izan da. Saizarbitoriaren obra osoan, *Martutenen* sakonago, testuartekotasunak duen garrantzia neurtu nahi izan da, dela beste idazleen obrekikoa, dela egilearen obren artekoa. Egilearen hainbat obretan agertutako eszenak, besteak beste, Gloria Victis eta beroki gorridun emakumea ohean eserita, ia-konpultsiboki agertuko dira nobelan zehar, *Martutene* idazlearen obra guztien arragoa bilakatuz. Beste idazleei dagokienez, esan liteke aurreko obretan nabaria zen joera muturrera eraman dela nobelan, izan ere, idazle ugarien aipuek zein kultur erreferentziek halako entziklopedia kutsua ematen diote. Testuartekotasun baliabideei dagokienez, Saizarbitoria gehienbat aipu zuzenez baliatu da. Maiz, ordea, aipu hutsetik haratago doa eta idazleen gaineko komentarioak daude. Juliak, esaterako, Frischen *Fragebogen* eta *Montauk* itzultzen ari delarik, ohar ugari egiten ditu bi nobelez eta oro har Max Frischen obraz. Frischen *Montaukek* liburu osoa egituratuko du, izenburuen parekotasunetik bertatik igarri daitekeen bezala. Nobelak *Martuteneko* errealitatea itxuratuko du. Hori horrela, hainbat eszenek zein esaldi testualek liburu batetik besterako jauzia egingo dute eta pertsonaia batzuen karakterizazioak antzekoak izango dira. Pertsonaien gogoeten lagungarri izango da liburua, gai esanguratsuak jorrazteko abiapuntu, eta hau gutxi balitz, *Montauk* liburu fisikoak ere zeresana izango du argumentuan. Saizarbitoria, beraz, ez da idazle suitzarrari omenaldia egitera mugatzen, baizik eta haren liburuetako bat erabiltzen du bere eleberria taxutzeko, hots, *Martuteneko* ezinbesteko pertsonaia bihurtzen du *Montauk*. Genneten irizpideari jarraiki, *Martuteneren* hipotestutzat har genezake bigarren hau, eleberraren esangura osoa edukitzeko nahitaezko elementua den neurrian. Saizarbitoriaren unibertso literarioan Frischek baitezpadako lekua badu ere, horren parte ere badira nobelan zehar aipatzen diren gainerako idazleak, besteak beste hemen jorratu diren Lizardi eta Unamuno. Idazleen aipuek, liburuetako aipamenek eta literaturaren gaineko gogoetek presentzia etengabea dute pertsonaien gogoan eta mundu-ikuskeran. Ondorioz, zilegi da esatea, idazleaz denaz bezainbatean, literatura (sortzea eta irakurtzea) ez dela denbora-pasa huts, bizitza bera baizik.

Erruak zamatzen ditu *Martuteneko* pertsonaiak, eta berandu baino lehen bere erruei egin beharko diete aurre, arrakasta eskuratuz batzuetan, porrot eginez besteetan. Hasier Etxeberriak (2012) aipatutako erru unibertsala dago eleberrian, Philip Rothen *American pastoralen* dagoen hori bera. Erruak, sarritan konkretua izanagatik, orokorraren

itxura du, garen bezalakoak izateak dakarren albo kaltea. Ez da nahikoa nork bere eginkizunak ondo burutzea, bizitzak bestelako pultsioen arabera funtzionatzen baitu. Mundu baten pitzadura iragartzen dute eleberriok, eta mundu horren protagonistek harrিতa begiratzen diote suntsipenari, beren errua zein ote den jakin nahian. Saizarbitoriak eta Rotheek, bizi duten mundu kontretuaren behatzaile arretatsu diren aldetik, xeheki deskribatuko dituzte arrakalatze horren nondik norakoak.

Summuntzat jo izan da Saizarbitoriaren *Martutene*, egilearen ibilbide literarioko mugarri gisa. Idazlearen aurreko nobeletan antzemandako joera askok goia jo dute nobelan. Egilearen obsesioak inoiz baino biziago ageri dira. Oroimenak erabateko garrantzia hartzen du, nobela mundu-sinboliko bilakatuz; idazki fetitxeak berebiziko funtzioa izango du, nobelaren ulermen osorako ezinbesteko bihurtuz; bikote harremanek nagusitasuna dute... Saizarbitoriak muturreraino daramatza bere betiko kezka, apika horiek denak kitatzeko helburuz. Antza denez, *Martutenerekin* zama gainetik erauzi du, eta aurrera begira libreago sentituko omen da. Idazlearen hitzetan, bere belaunaldiarekiko zorrak kenduta, ondorengo belaunaldiaren istorioak (nobelako Loiola eta Zigor) kontatu nahi ditu orain. Transmisio horretan sakontzen du *Lili eta bioken* (2015). Dena dela, ezin esan autoreak betiko kezka alde batera utzi dituenik, azken eleberri honetan ere maitasun-istorioek, iraganaren zamak eta transmisioak, eta literaturaren funtzioak zeresan handia izaten jarraitzen baitute.

## 5. Bibliografia

Aldekoa, I. (2013), “‘Martutene’ la escritura o la vida”, *Ínsula: revista de letras y ciencias humanas*, 797, 21-23. or.

Aldekoa, I. (2018), “Ramon Saizarbitoria eta Joxe Azurmendirekin solasean”, *Egan: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Boletinarene Euskarazko Gehigarria*, 3-4, 29-48. or.

Apalategi, U. (2009), “Zer egin ‘Nouveau Roman’-aren hilotzarekin? Saizarbitoria eta birziklaia literarioa *Hamaika pauson*”, *Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria*, 13, 2009, 31-42. or.

Apalategi, U. (2013), “Euskal subjektuaren bilakaera erromaneskoa: desberdintze estrategiaren eta homologazio nahiaren arteko negoziaketa literario ideologikoak”, *452°F: Revista de Teoría de la Literatura y Literatura Comparada*, 9, 56-77. or. Sarean: <<https://www.raco.cat/index.php/452F/article/view/275772/363736>> [2019/04/15]

Arroita, I. (2015), *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik*, Bilbo: EHU. Sarean: <<https://addi.ehu.es/handle/10810/15964>> [2019/04/13]

Ayerbe, M. (2012), “Ramon Saizarbitoriaren *Kandinskyren tradizioa*: testuartekotasun estrategietan barna / *Kandinskyren tradizioa* [a tradición de kandinsky] de Ramon Saizarbitoria: unha incursión nas estratexias intertextuais” in Roig Rechou, B.A.; Soto López, I. & Neira Rodríguez, M. (arg.), *A narrativa xuvenil a debate (2000-2011)*, Vigo: Xerais, 237-258. or.

Ayerbe, M. (2015), *Euskal literatura kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria, eta Atxagaren sorkuntza prozesua aztergai*. Bilbo: EHU. Sarean: <<https://addi.ehu.es/handle/10810/19554>> [2019/04/15]

Azurmendi, J. (2012), *Bakea Gudan: Unamuno, Historia eta Karlismoa*, Tafalla: Txalaparta.

Casenave, J. (2008), “Testuartekotasun” in A.A., *Literatura Terminoen Hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia, 712-715. or.

de Unamuno, M. (1966), *Obras completas. II, Novelas*, Madril: Escelicer

Etxeberria, H. (2002), *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, Irun: Alberdania.



- Etxeberria, H. (2012), “Saizarbitoriaren *Martutene* eleberriaz”, *Zuzeu*, 2012-04-4. <<https://zuzeu.eus/kultura/saizarbitoriaren-martutene-eleberriaz/>> [2019/04/05]
- Frisch, M. (2001), [1967], *Homo Faber*, Donostia: Elkar.
- Frisch, M. (2014), [1975], *Montauk*, Bartzelona: Debolsillo.
- Gabilondo, J. (2013), *Martutene-New York*, Bilbo: EHU.
- Garro, L. (2012), “Martutene”, *Berria*, 2012-07-01. Sarean: <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5511>> [2019/04/07]
- Genette, G. (1989) [1982], *Palimpsestos: la literatura en segundo grado*, Madril: Taurus.
- Joyce, J. (1992) [1916], *Artistaren gaztetako portreta*, Euba: Ibaizabal.
- Kortazar, J. (2012), “Bost pertsonaia, hiru liburu, sinbolo bi, egilea eta gizartea”, *El Correo*, 2012-04-28. Sarean: <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5462>> [2019/04/23]
- Kristeva, J. (2002) [1969], *Semiótica*, Madril: Fundamentos.
- Legarreta, I. (2018), “Euskal nazionalismoa Ramon Saizarbitoriaren *Martutenen*. Iñaki Abaitua eta Juliaren gogo-bihotzetan haztakatzen”, *Egan: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Boletinarene Euskarazko Gehigarria*, 3-4, 49-75. or.
- Martínez Fernández, J.E. (2001), *La intertextualidad literaria: base teórica y práctica textual*, Madril: Cátedra.
- Mendoza Fillola, A. (2001): *El intertexto lector. El espacio de encuentro de las aportaciones del texto con las del lector*, Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Olaziregi, M. J. (2001), *Ramon Saizarbitoriaren unibertso literarioa*, Bilbo: Labayru ikastegia.
- Olaziregi, M.J. (2004), “Ramon Saizarbitoria: obsesioez haratago literatura”, *RIEV*, 49-2, 521-549. or.
- Onega, S. (1997), “Intertextualidad: concepto, tipos e implicaciones teóricas” in Bengoechea, M. eta Sola, R. (arg.), *Intertextuality: Intertextualidad*. Alcalá de Henares: Universidad de Alcalá de Henares, 17-34.

- Rivera de la Cruz, M. (1997), “Intertexto, Autotexto: La importancia de la repetición en la obra de Gabriel García Márquez”, *Especulo. Revista de Estudios Literarios*, 6. Sarean: <<http://www.ucm.es/OTROS/especulo/numero6/intertex.htm>> [2019/04/02]
- Roth, P. (2018), [1997], *Pastoral americana*, Bartzelona: Debolsillo
- Saizarbitoria, R. (1969), *Egunero hasten delako*, Donostia: Lur.
- Saizarbitoria, R. (1976), *100 metro*, Donostia: Kriseilu
- Saizarbitoria, R. (1976), *Ene Jesus*, Donostia: Kriseilu
- Saizarbitoria, R. (1995), *Hamaika pauso*, Donostia: Erein.
- Saizarbitoria, R. (1996), *Bihotz bi. Gerrako kronikak*, Donostia: Erein.
- Saizarbitoria, R. (2000), *Gorde nazazu lurpean*, Donostia: Erein.
- Saizarbitoria, R. (2003), “Hemen nago, liburuz inguratuta, zutaz pentsatzen” in Muñoz, J. (Koord.), *Begiz jotako ipuinak*, Irun: COF-Alberdania, 46-55. or.
- Saizarbitoria, R. (2003), *Kandiskyren tradizioa*, Donostia: Erein.
- Saizarbitoria, R. (2012), *Martutene*, Donostia: Erein.
- Saizarbitoria, R. (2015), *Lili eta biok*, Donostia: Erein.
- Zapiain, M. (2015), *Saizarbitoria eta iragana*, Zarautz: Susa.

6. Eranskina<sup>10</sup>

Idazleak eta filosofoak	Bestelakoak
Felix de Azúa (11)	René Magritte (9)
Sigmund Freud (12)	Serge Reggiani (42)
Samuel Beckett (12)	Hazel Harrison (97)
Jean Ricardou (14)	Sebastian Bach (163)
Gustave Flaubert (14)	Glenn Gould (163)
Jon Juaristi (21)	Henri Salvador (164)
Sándor Márai (21)	Bernard Dimey (164)
Vladimir Nabokov (21)	Eduardo Mokoroa (180)
William Blake (21)	Lili Marleen (181)
Simone de Beauvoir (39)	Maurice Ravel (230)
Albert Cohen (43)	Paul Wittgenstein (231)
Pedro Agerre “Axular” (78)	Léo Ferré (255)
Cristina Rossetti (78)	Charles Aznavour (255)
Jacques Rigaut (96)	Jorge Oteiza (257)
Xavier de Maistre (97)	Jean Seberg (264)
Robert Musil (107)	Annie Girardo (426)
James Joyce (107)	Auguste Rodin (428)
Natalia Ginzburg (109)	Jacques Brel (434)
Rousseau (113)	Rafael Ruiz Balerdi (434)
Max Frisch (123)	Ígor Stravinsky (438)
Michel de Montaigne (126)	Edward Hopper (522)
Franz Kafka (135)	Isaac Newton (529)
Ernest Hemingway (149)	Henri Maspero (558)
Ramon Zulaika (171)	Edvard Munch (659)
Louis-Ferdinand Céline (193)	Sarah McLachlan (607)
Marcel Reich-Ranicki (218)	Alfred Hitchcock (628)
Voltaire (223)	
Xabier Lizardi (229)	
Ludwig Wittgenstein (231)	
Ingeborg Bachmann (231)	

<sup>10</sup> Izen bakoitzaren ondoan orri-zenbakia adierazita dago.

Erving Goffman (233)	
Joseph Conrad (234)	
Miguel de Unamuno (245)	
Gorka Knörr (246)	
Anton Abbadia (246)	
Pierre Loti (246)	
Lev Tolstoi (250)	
Alexander von Humboldt (246)	
Luis Luziano Bonaparte (246)	
Agosti Xaho (246)	
Max Weber (248)	
Louis Aragon (255)	
Alexandre Dumas (267)	
Gabriel Celaya (283)	
Denis Diderot (283)	
Jean Echenoz (279)	
George Borrow (282)	
Gustavo Adolfo Bécquer (283)	
Vicente Blasco Ibañez (284)	
Ricardo León (284)	
José Miguel Ullan (295)	
Jules Renard (295)	
Botho Strauss (329)	
Angela Carter (363)	
Henry James (363)	
Margaret Shedd (364)	
Fernando Aire “Xalbador” (411)	
Tito Livio (413)	
Platon (432)	
Jacques Rigaut (433)	
W. N. P. Barbellion (434)	
Ernst Gombrich (444)	
Hermann Hesse (445)	

Jean Paul Sartre (445)	
Herman Melville (445)	
Guy de Maupassant (446)	
Koldo Izagirre (446)	
Rainer Maria Rilke (448)	
Karen Horney (453)	
Tomas Akinokoa (482)	
George Steiner (563)	
Margaret Atwood (575)	
Ian McEwan (575)	
Iris Murdoch (581)	
Julian Barnes (603)	
Paul Auster (603)	
Louise Colet (635)	
Thomas Carlyle (651)	
Nikolai Gogol (651)	
Virgilio (651)	
Emeterio Arrese (705)	
Nikolas Ormaetxea “Orixe” (724)	